

**GARRAIOA.** Getxoko beharrek metroaren bigarren linea amaitu arte itxaron beharko dabe



VERONICA MUNOZ

Maidaganen lur ganetik igaroten da metroa. Auzokoek 13 urte daro ez egoera konpontzeko eskatzen.

## Maidagango pasagunea lurperatzeko dirurik ez dagoela dino Basozabalek

Inbertsino barriek Garraio Partzuergoaren finantzaketa arriskuan ipiniko leukiela dino

Iñigo Olabarri

Bizkaiko Foru Aldundiak Batzar Nagusietan legez besteko proposamena jaso eban Maidagango pasagunea lurperatzeko beharrak egin daitezana. Proiektua eginda dago, baina Jose Felix Basozabal Herri Lan eta Garraio Saileko diputauak agertu eban, behar horreek finantzatzeko dirurik ez dago gaur egun. «Metroaren bigarren linea dala eta Garraio Partzuergoaren zorrak handiak dira. Beste proiektu batek arriskuan ipiniko leuke partzuergoaren finantzaketa», esan eban diputauak.

Maidagango obren inguruan egin daben aurrekontuaren arabera, pasagunea lurperatzeko beharretarako 8,29 milioi euro beharko litzateke. Dirutza hori mahai ganean ipini ahal izateko modu bakarria metroaren bigarren lineako obrak amaitu arte egotea da Jose Felix basozabalek, Herri Lan eta Garraio saileko diputauak, Azpiegituren batzordearen aurrean adierazo eban.

### Garraio Partzuergoaren finantzaketa plana aldatu behar

Maidagango beharrak hasi ahal izateko modu bakarria Garraio Partzuergoaren finantzaketa plana aldatzea izango litzatekeela dino Basozabalek. Kasu ho-

BODOVALLEKO MEATEGIA

## Orain arteko erabilereari eutsiko deusiela dino Aldundiak

Eusko Jaurlaritzak urte hasieran atara eban azterketa baten agertzen zanez, Abantoko Bodovalleko meategia zanaren ganeke lurraz ez dira seguruegiak. Hori dala eta, horretan mugak ipini zituen: kasu batzuetan oraingo erabilera baino handiagorik ezingo jake emon lurrei, eta beste batzuetan, ezin izango dira ezertarako erabili. Batasunak arazo hori dala eta Campilloko industria gunea eta Gallartako saihesbidearen bigarren fasea zertan geldituko diran galdetu eban. Kasu bietan jaso eban erantzuna antzerakoa izan zan. Orain emoten jakena baino erabilera handiagoa ez deusiela emongo erantzun eutsen Batasuneko en itaunari.

JOSE FELIX BASOZABAL

Herri Lan eta Garraio diputaua

«Metroko 2. linea dala eta Garraio Partzuergoak zor handiak ditu. Inbertsinoek arriskuan ipiniko leuki finantzaketa»

rretan, bozkatu beharko leukien 26 ordezkarietatik bi baino ez dira Aldundiaren izenean dagozanak. Gainontzekoak Bilboko Udala, Ezkerraldeko udalak eta itsasadar baztarreko udalak dirala generatu eban Herri Lan eta Garraio diputauak.

TXEMA PICO

Batasuneko batzarkidea

«Batzar Nagusietan aurrera ataraten diran proposamenen finantzaketa topetea da Aldundiaren beharra»

Maidagango pasagunea lurperatzeko dagoen egitasmoa berez ez dala arazo esan eban Basozabalek; finantzatzeko modua izango litzateke arazoa. Gaur egun, ganera, metroaren bigarren linea da lehentasuna daukana.

Batasunak ez zituen ontzat emon Jose Felix Basozabalen berbak. Batzarkideen beharra egin behar diranak proposatu eta onartzea dala esan eutsen Herri Lan eta Garraio Saileko diputauari. «Gero, hemen onartzen diran proposamenak aurrera atara ahal izateko finantzaketa topetea Aldundiaren beharra da».

Antzerako bidetik jo eban Alderdi Popularreko batzarkideak, Jesus Isasik. Popularrek azkenengo urteetan Aldundiak arazo horren aurrean euki dauen jarrera zein izan dan be leporatu eutsien Basozabali. «Ondo dago Maidagango pasagunea lurperatzea hain gatxa ez dala jakitea. Orain dala gitxira arte ezinezkoa zala esaten zenduen eta», bota eutsen Isasik Basozabali.

Basozabalek bere alderdiaren babes jaso eban Batasunetik eta Alderdi Popularretik entzun behar izan zituen aurrean. Iñigo Iturratek, EAJko batzarkidea, bere alderdia proposamen horren kontra egoala esan eutsen gainontzeko alderdiei.

EAJko ordezkariak fedeagaz jokatzera erreza dala gogoratu eragin eutsien Alderdi Popularreko batzarkideei eta benetako aurrekontu batek dituen mugak azaldu eutsezan.

BIZKAIA

## Aldundiak 10.000 bidaia zozketatu ditu Adineko programaren barruan

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza arloak 10.000 bidaia zozketatu zituen atzo. Bidaia horreek Adineko programearen barruan eskaintzen dituenak dira. Zozketan 60 urtetik gorako pertsonak sartzen dira.

Adineko programeak 16 lekura joateko aukerea emoten deutse zozketan parte hartzen dabenei. Eskaintza horretan merkatuko prezioak baino merkeagoak eskaintzen ditue.

Aurten 28.473 pertsonak emon dabe izena, igaz baino %25 gehiagok. Horreen artean baliabide gitxiak daukien pertsonen bidaiaren eta egonaldiaren %85 ordaintzen jake.

Benidorm, Kanariar uharteak, Torremolinos eta Almeria izan dira jentek gehien eskatu dituen lekuak. Gandia, Mallorca eta Fiteroko bainuetxea dira aukeratu ahal izan dituen beste leku batzuk.

BILBO

## Hamahiru prozesino egingo ditue Aste Santuan uriburuan

Erredakzioa

Aste Santuan hamahiru prozesino egingo ditue Bilboko kaleetan. Barri hori emon eban atzo uriburuko Penitentzia Kofradien Anaitasunak.

Bilbon bederatzikofradia dagoz gaur egun. Kofradia horreetako 4.000 lagunek hartuko dabe parte Aste Santuan egingo diran prozesinoetan. Prozesino horreetako batzuk oso zaharrak dira eta balio artistiko handia daukienak. Danetara 200.000 pertsona inguruk ikusten ditue prozesinoak.

Aste Santuagaz lotutako liburu baten aurkezpena be egingo da gaur. *Bilboko Aste Santua. Munduko zaharretako bat* liburua 1554tik hona Jesukistoren pasinoan Bilbon zelangoa dan agertzen da.